

**Zure laguntzari esker, aurreikusitako beste hobekuntza batzuk ere egingen ditugu**

**Altzariak/ Sukaldeko eta jangelako tresnak:**

- Portzelanazko mahai-tresnak
- Etxeko itxurako mahaiak
- Itxura etxeko sofak

**A+++ energiako materiala:**

- Sukaldeko etxetresna elektrikoak
- Espazioen klimatizazioa

**Domotika:**

- Sarrera Digitala zentrora eta barnealdeko ateak txartel teknologikoen bidez.
- Bideozaintza sistema, arriskurik eta erorketarik ez izateko.

**PARTIKULARRA BAZARA**, zure ekarpenarekin, emandako zenbatekoaren %80 ere berreskuratu dezakezu urteko Errenta Aitorpenean. Pertsona fisikoek 150€-ra arteko urteko ekarpenek %80ko aurrezpen fiskala ekar dezakete. Lehen 150 eurotik gora, emandako zenbatekoaren %35en itzulketa jasotzen da, zenbatekoa 150€-tik gorakoa bada.

**AUTONOMOA EDO ENPRESA BAZARA**, aurrezpen fiskala, zerga tasaren arabera, dohaintzaren %48ra bitartekoa **IZAN DAITEKE**.




## ARITU ELKARLANEAN GUREKIN GIZARTE PROIEKTU HAU BULTZATZEKO

JOSEFINA ARREGUI KLINIKA FUNDAZIOAREN ALTSASUKO EGUNEKO  
ZENTROA BERRITU ETA HANDITZEKO DIRU BILKETA

INFORMAZIOA 948 563 850

HAR EZAZU PARTE HEMEN:  
[WWW.JOSEFINAARREGUI.COM](http://WWW.JOSEFINAARREGUI.COM)



# CROWDFUNDING KANPAINAN

JOSEFINA ARREGUI  
KLINIKA FUNDAZIOAREN  
ALTSASUKO EGUNEKO  
ZENTROA BERRITU ETA  
HANDITZEKO DIRU  
BILKETA

INFORMAZIOA 948 563 850  
[www.josefinaarregui.com](http://www.josefinaarregui.com)

# JOSEFINA ARREGUI KLINIKA FUNDAZIOA

Josefina Arregui Klinika Fundazioaren Eguneko zentroa 1994an sortu zen Altsasun. Fundazioak abian jarritako lehen baliabidea da. Guztira, 25 leku ditu.

Urte hauetan zehar, aldaketa gutxi egin zaizkio hasierako obraren egiturari eta, gaur egun, zenbait aldetan zaharkitua gelditu da. Beraz, alde horiek birmoldatu, modernizatu eta egokitu behar dira gure adinekoak goxoago hartzeko.

Josefina Arregui Klinikaren Lagunen Elkartearen lana bultzatzen eta laguntzen ari da 2015. urtetik hona.



HAR EZAZU PARTE



## **Crowdfunding Kanpainaren helburua dirua biltzea da Eguneko Zentroa hein batean berritzeko. Hona hemen zer egin asmo den:**

Hobekuntza orokorrak:

- Sarbide berri bat sortuko da kaletik sartzeko eta argi naturala hobetuko da, eraikinaren ipar-mendebaldeko izkina handituz, 115,00 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin.
- Espazio handiagoa eta hobeagoa lortzea erabiltzaile bakoitzeko.
- Estalki, zoru eta fatxaden isolamenduak areagotzea, eta zuraje isolatzaileagoak paratzea kanpoan, eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko.
- Eraginkortasun energetikoa hobetzea, aerotermia motako sorkuntza-sistema baten bidez, behar adinako ahalmena izanen duena barrutiak neguan berotzeko eta udan freskatzeko.
- Erizaintza kontrolerako eremu berri bat sortzea, kristaldua eta gela guztiak ikusteko modukoa, erabiltzaileak hobeki kontrolatzeko.

# CENTRO JOSEFINA ARREGUI

- Eskualdeko jende gehiago artatzea.
- Eremu bat sortzea jarduera gelarako, sarreraren ondoan, eguneroko bizitzarako. Gela horrek sukaldea izanen du eta, behar den ekipamendua, jarduera horietako batzuk egiteko; gainera, irekia egonen da handitze lanen bidez eginen diren gainerako espazioetara.
- Bi erizaintza eta fisioterapia gela sortzea banakako esku-hartzerako.

Espazioen berregituraketa:

- Etxe-giroko material goxoak paratzea. Etxebizitzak ohi dituen elementuak jartzea, hala nola tximinia edo sutondo faltsuak, etab., etxe barneko giroa birsortzeko asmoz.
- Sukalde eta egongela eremua, haien eguneroko bizitzako jarduerak egiteko (AVD). 6 bainugela egokituko dira irisgarriak izateko.

